# UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoa

## 2014-2017

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIZKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE LA EXCELENCIA INTERNACIONAL

www.ehu.es

Koordinatzailea: Nekane Balluerka Lasa
*Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea*

Lege gordailua: BI - 1.130-2014 • © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (UPV/EHU)

# Aurkibidea

**1. Sarrera** .......... 4

**2. Plan Estrategikoa prestatzeko metodologia** .......... 7

**3. Gaur egungo egoeraren diagnosia** .......... 9

**4. Misioa eta ikuspegia** .......... 13

**5. Ardatz estrategikoak** .......... 14

**6. Eranskina** .......... 23

# 1

# Sarrera

## 1.1. Testuingurua

UPV/EHU unibertsitate publikoa da, ikertzailea, mundura irekia, bere lurraldean eta kulturan sustraitua, eta ondoko ezaugarriak dituen **graduondoko eskaintza** sustatzeko konpromisoa duena:

— erreferentea izan dadila ikerketan, berrikuntzan eta jakintzaren transferentzian,

— bai gure inguruan bai nazioartean.

UPV/EHUk, horretarako, aurre egin behar die zenbait **erronkari:**

— Graduondoko eskaintza anitza eta kalitatezkoa sustatzea.

— Gaur egungo graduondoko eskaintzaren norabidea ezartzea, kontuan hartuta baliabideak, eskaera eta gizarte proiekzioa.

— Doktorego programen eskaintza 99/2011 Errege Dekretura egokitzea.

— Kalitatezko argitalpenak ekarriko dituzten doktorego tesiak egitea bultzatzea.

**Graduondoko Ikasketen 2014-2017 aldirako Plan Estrategikoaren** helburua da aipatutako erronkei aurre egitea, bai eta **UPV/EHUren 2012-2017 aldirako Plan Estrategikoan** zehaztutako graduondoko ikasketei buruzko ildo estrategikoak garatzea.

**UPV/EHUren 2012-2017 aldirako Plan Estrategikoan** helburu eta ekintza hauek daude jasota, besteak beste:

— Prestakuntza osoa, malgua eta gizartearen premietara egokiturikoa eskaintzea, lankidetzan oinarritutako eredu eleanitz eta inklusibo propio bati jarraituz, pertsona irizpidedunak, sortzaileak, ekintzaileak eta gizartearekin konprometituak bultzatzeko xedez.

— Irakaskuntzan eta ikaskuntzan bikaintasuna erdiestea, inguruan goi-hezkuntzaren erreferente izaten jarraitzeko eta nazioartera hedatzeko.

— Lankidetzan oinarritutako prestakuntzaren eta ikerketaren oinarrizko eragilea izatea Atlantikoko Arkuko Europar Eskualdean, nazioarteko ikuspegia unibertsitateko jarduera osora hedatuta.

—Graduondoko eskaintza nazioarterako erakargarria, zabala eta kalitateduna izatea, bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesez; horrek aukera emango du bi-kaintasunezko ikertzaileak prestatzeko.

—Euskal gizartearen irakats-premiei erantzutea, enplegagarritasuna eta laneratzea sustatzeko.

—Campus Birtuala berriro osatzea, ikasgelaz kanpoko irakaskuntza eta ikaskuntza sustatzeko zerbitzuen erabilera eta horien kalitatea sendotzeko.

**Graduondoko Ikasketen 2014-2017 aldirako Plan Estrategikoak** UPV/EHUn erreferente diren beste plan batzuk hartzen ditu kontuan, ondorengo taulan agertzen direnak hain zuzen ere:




Azkenik, baina ez horregatik garrantzi txikiagokoa, azpimarratu behar da **Graduondoko Ikasketen 2014-2017 aldirako Plan Estrategikoa** egitean gogoan izan ditugula uneoro UPV/EHUren Estatutuak, 2011. urtean onartuak, eta bereziki 4. artikuluan aipatzen diren helburuak:

a) Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garapena sustatzea, ikerketaren bitartez eta ikerketaren emaitzak gizarteratuz.

b) Euskal gizartearen ondare intelektual, humanistiko, kultural eta zientifikoa aberasteko lanetan parte hartzea, baita ekonomia garapenean eta gizartearen ongizatean ere.

c) Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea.

d) Euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan.

e) Profesionalen etengabeko prestakuntza eta goi mailako irakaskuntza eskatzen duten gizarteko beste taldeen etengabeko prestakuntza edo bizitza osoko prestakuntza sustatzea.

f) Unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza bultzatzea, batez ere gizarte eta kultura mailen arteko aldeak gutxitzera zuzenduak, bai eta bizitza politiko, kultural eta sozialean hobeto parte hartzeko baldintzak sortzera zuzenduak ere.

g) Nazioarteko trukea eta lankidetza indartzea, bereziki Europako esparruan eta garapenerako lankidetzaren alorrean.

h) Harremanak izatea eta hitzarmenak egitea erakunde publiko eta pribatuekin, UPV/EHUko tituludunen prestakuntza hobea izan dadin eta, ondorioz, lanean hasteko aukera gehiago izan dezaten.

Halaber, UPV/EHUko estatutuen 116. artikuluan jasotzen diren hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko eskubideak kontuan hartu dira.

## 1.2. Irismena

Plan Estrategikoaren helburu diren graduondoko ikasketak honako hauek dira:

— Master ofizialak:

- Lanbiderako ahalmena ematen duen masterrak: Europako Goi-Mailako Hezkuntza Eremura egokitutako titulazioen marko berrian, lanbidean jarduteko gaitasunak graduko titulazioarekin lortzen dira kasu batzuetan, eta beste batzuetan, aldiz, master titulazioarekin. Horrela, bada, lanbiderako ahalmena ematen duten masterrak dira lanbide erregulatu batean jarduteko gaitzen dutenak.
- Master eta Doktorego Eskolari atxikitako master ofizialak: doktoregorako sarbidea ematen duten masterrak dira, ikerketara bideratutakoak izan zein garapen profesionalera bideratutakoak izan.

— Doktorego programak (doktorego ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuaren araberakoak).

— Graduondoko berezko tituluak: gutxienez 30 ECTS kreditu dituzten graduondoko tituluak dira.

# 2

# Plan Estrategikoa prestatzeko metodologia

Plan estrategikoa prestatzeko prozedurak hiru fase izan ditu, elkarren segidakoak, onartua izan aurretik: plan estrategikoaren oinarriak prestatzeko atariko etapa; tarteko fasea, unibertsitateko kideen eta beren interes taldeen eta, oro har, gizartearen ekarpenak jasotzeko; eta, azkenik, Gobernu Kontseiluaren onespenerako aurkeztu den proposamena prestatzeko fasea.

## 2.1. Atariko fasea

**Atariko fasearen** helburua izan da oinarrien proposamena prestatzea, ondoren egin beharreko lana errazteko. Dokumentu honek oinarri horiek biltzen ditu, bai eta UPV/EHUko beste plan batzuen ekarpenak ere, unibertsitateko kideen parte hartzeaz osatuak eta gure unibertsitateko aginte organoek ontzat emanak.

## 2.2. Bigarren fasea

**Bigarren fasean** parte hartzerako prozesua eratu da, eta horren bidez unibertsitateko kide guztiek eta herritar guztiek hartu dute esku plan estrategikoaren proposamena osatzeko lanean.

Fase honetan ardatz bakoitzeko helburu estrategikoak lortzeko ekintza edo ildo estrategikoak ezarri dira. Parte hartzea bi mailatakoa izan da: barrukoa eta kanpokoa.

**Barruko parte hartzerako** batzordeak antolatu dira, plana osatzen duten ardatz estrategiko bakoitzerako bat. Ardatz estrategikoak lotuta daude UPV/EHUk eskaintzen duen graduondoko prestakuntzako prozesu nagusiekin. Hortaz, lan batzorde bat eratu da planean adierazitako ardatz bakoitzeko. Batzorde horiek ildo estrategikoak zehaztu dituzte eta helburuak lortzeko baliagarri izan behar diren ekintzak identifikatu.

Batzordeen osakideak izan dira kasuan kasuko ardatzari lotutako unibertsitateko taldeen ordezkariak, eta ardatz bakoitzari dagokion arloan eskumenak dituzten errektorego taldeko kideek edota zuzendaritza organoetako kideek dinamizatu dituzte (koordinatzaileak).

Batzorde bakoitzak, beraz, kide hauek izan ditu:

— Koordinatzailea.

— Graduondoko Batzordeko bi kide.

— Master eta Doktorego Eskolako Batzorde Iraunkorreko kide bat.

— Graduondoko Batzordeko ikasle bat.

— AZPko langileen ordezkari bat, ardatz estrategikoari lotua eta ardatzeko koordinatzaileak proposatua.

— Sei irakasle-ikertzaile, ardatz estrategikoari lotuak.

Lan taldeko kideak aukeratu dira horietan parte hartzeko interesa azaldu duten pertsonen artetik, irizpide hauei jarraituta:

— Campusen arteko oreka.

— Generoen arteko oreka.

— Jakintza adarren arteko oreka.

— Kideen erdia elebiduna izatea.

Batzordeko koordinatzailea arduratu da ekarpenak jasotzeaz, dinamika eta lan metodologia proposatzeaz, eta proposamena prestatzeaz.

Lan batzordeen emaitzak bateratu eta homogeneizatu egin dira, dokumentu bakarra prestatzeko, koherentea eta errepikapenik gabea.

**Kanpoko parte hartzerako** bidea ere ireki zen eta, horrela, batzordeek prestatutako proposamena aurkeztu zitzaion Gizarte Kontseiluari, eta Euskal Herriko sare ekonomiko eta sozialeko ordezkariei planaren berri emateko aukera eman zitzaion aipatutako organoari.

## 2.3. Hirugarren fasea

Azkenik, **hirugarren fasean,** aurreko fasearen emaitzan oinarrituta, plan estrategikoaren lehen bertsioa egin zen. Bertan ardatz estrategiko bakoitzeko ildo estrategikoak, ekintzak eta adierazleak zehaztu ziren.

Dokumentu hori UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoa 2014-2017 aldirako izango dena, Gobernu Kontseiluari aurkeztu eta hor eztabaidatu zen, eta emendakinei erantzuna eman ondoren, 2014ko uztailaren 10eko saioan aho batez onartu zen.

# 3

# Gaur egungo egoeraren diagnosia

## 3.1. UPV/EHUko graduondoko ikasketen kokatze mapa

Norabide estrategikoa zehaztu ahal izateko ezinbestekoa da gaur egungo egoeraren lehenengo diagnosia egitea.

Horretarako, eta lehen urrats moduan, **UPV/EHUko graduondoko irakats-eskaintza kokatzeko mapa** egin da.

**Kokatzeko mapa** espezializazio-arloen arabera egin da nagusiki, hau da, UPV/EHUn ikerketaren eta prestakuntzaren esparruetan ibilbide luzea eta oparoa duten gaikako espezializazio eremuak.

**Kokatze mapak** atal hauek ditu:

- Lanbiderako ahalmenak ematen dituzten master ofizialak: Lanbiderako ahalmena ematen duten UPV/EHUren gaur egungo eta etorkizuneko masterren azterketa; ikasle kopuruen bilakaera azken 4 ikasturteetan; masterren hizkuntza; ikasleen jatorrizko unibertsitatea; kanpoko erakundeek masterrarekin duten lotura; eta, azkenik, inguruko unibertsitateen lehiari buruzko azterketa.
- Master eta Doktorego Eskolari atxikitako master ofizialak: Azken 4 ikasturteetan masterren eskaintzak izandako bilakaeraren azterketa, espezializazio arloka; matrikulatutako ikasleen eta master bakoitzeko batez besteko ikasle kopuruaren azterketa; urtean ematen diren kredituen kopurua; ingelesez eta euskaraz ematen diren masterrak; Erasmus Mundus masterrak eta unibertsitate arteko beste master batzuk; 2012/2013 ikasturtean master ofizialetan matrikulatutako ikasleen jatorria; masterretako irakasleen profila; masterrek euskal kulturarekin eta euskararekin duten lotura.
- Doktorego programak: 2012/13 eta 2013/14 ikasturteetan doktorego programen eskaintzak izandako bilakaeraren azterketa, espezializazio arloka, unibertsitate arteko doktoregoak; irakurritako doktorego tesiak (nazioartekoak eta estatutakoak) eta azken bost urteetako JCR argitalpenak; tesia argitaratu den hizkuntza (ingelesa, euskara, gaztelania); doktorego programek euskal kulturarekin eta euskararekin duten lotura.
- Enplegagarritasuna, jakintza adarren arabera: graduondokoa bukatu duten ikasleen lan jardueraren eta enplegu kalitatearen adierazleen azterketa, egindako graduondokoaren arabera (doktoregoa, master ofiziala, berezko titulua) eta graduondoko tituluaren jakintza adarraren arabera.

— UPV/EHUren master ofizialak eta doktorego programak HORIZON 2020rekin lerrokatzea: UPV/EHUren master ofizialak eta doktorego programak Europar Batasunaren HORIZON 2020 programak hobesten dituen espezializazio arloekin lerrokatzeari buruzko azterketa.

— UPV/EHUren master ofizialak eta doktorego programak Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campuseko espezializazio arloekin lerrokatzea: UPV/EHUren master ofizialak eta doktorego programak Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campuseko espezializazio arloekin lerrokatzeari buruzko azterketa.

— Masterrak eta doktorego programak espezializazio-arloen arabera: Master ofizialen azterketa espezializazio-arloen arabera (adierazle gakoak, partaidetza- eta lankidetza- maila), baita doktorego programena ere (masterren eta doktorego programen arteko lotura, arloko adierazleak).

— Master ofizialen eta doktorego programen eskaintza inguruko unibertsitateetan: Zaragozako Unibertsitatearen, Kantabriako Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Nafarroako Unibertsitatearen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Errioxako Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen eskaintzaren azterketa, jakintza adarren arabera; eta Bordeleko Unibertsitatearen, Pabeko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskaintzaren azterketa, espezializazio-arloen arabera.

— Berezko tituluak: eskaintzaren azterketa tipologiaren, espezializazio arloen, modalitatearen, hizkuntzaren eta unibertsitate arteko tituluen arabera; azken bi ikasturteetan matrikulatutako ikasleen bilakaera eta jatorria; tituluek euskal kulturarekin eta euskararekin duten lotura; UPV/EHUren berezko tituluen eta master ofizialen arteko gainezarpena; eta inguruko unibertsitateen lehiaren azterketa.

## 3.2. Barne eta kanpo diagnosia: AMIA analisia

**UPV/EHUko graduondoko ikasketen kokatze maparen** analisitik abiatuta, barne eta kanpo diagnosia egin da (ahuleziak eta indarguneak, batetik; eta mehatxuak eta aukerak, bestetik).

### 3.2.1. Barne diagnosia

**Ahuleziak**

— Hobetu daitekeen graduondoko ikasketen estrategia.

— Master eta doktoregoen eskaintza handitu aurreko koordinazio eta hausnarketa nahikorik ez.

— Ikasle kopuru txikia master kopuru handi batean (15 ikasle baino gutxiago masterren %20an).

— Hautazko kreditu asko ikasle gutxiko masterretan.

— Graduondoko ikasleen ehunekoa (%10) graduko ikasleena baino txikiagoa.

— Nazioarteko ikasle gutxi, Latinoamerikatik datozenak kenduta.

— Gainezarpenak masterretan (nahitaezko irakasgaiak eta ikerketa lerroak) eta doktorego programetan (ikerketa lerroak).

—Eskaintza urria on-line edo ikasgelaz kanpoko masterretan.

—Euskararen presentzia urria graduondoko prestakuntzan.

—Eskaintza espezializatuegia zenbait espezializazio arlotako doktorego programetan.

—Eskaintza urria UPV/EHUko ikasle gutxi berezko tituluetan, Gizarte eta Lege Zientzien arloan izan ezik.

**Indarguneak**

—Lanbiderako ahalmena ematen duten masterren eskaintza zabalagoa eta matrikulatutako ikasleen kopuru handia.

—Master eta Doktorego Eskolaren sorrera eta garapena.

—Latinoamerikako ikasle kopuru handia.

—Bi Erasmus Mundus masterretan parte hartzea eta horietako bat UPV/EHU koordinatzen duen unibertsitatea izatea.

—Masterren %10 osorik ingelesez ematea eta nazioarteko unibertsitate arteko 6 master ematea.

—Master eskaintza zabala jakintza adar guztietan.

—Neurri handi batean Horizon 2020 programarekin bat datozen masterrak eta doktorego programak.

—Bikaintasun aipamena duten 32 doktorego programa eta ANECAren aldeko txostena duten beste 7.

—Urteko tesi kopuru handia zenbait espezializazio arlotan.

—Nazioarteko tesien kopurua nabarmen eta etengabe handitzea.

—Tutorekidetzan egindako tesien kopurua handitzea.

—Graduondoko prestakuntza jaso duten ikasleen lan jarduerari buruzko adierazleen eboluzio positiboa.

### 3.2.2. Kanpo diagnosia

**Mehatxuak**

—Eusko Jaurlaritza: finantziazio publiko egonkorra murriztea krisi ekonomikoaren ondorioz

—Nazioartean izen handia duten beste unibertsitate batzuen lehia:

- Graduondoko ikasleen ehuneko handia izatea.
- Nazioarteko ikasle asko erakartzea.

—Inguruko unibertsitateen lehia:

- Berezko tituluen eskaintza zabala.

—Graduondokoak on-line eskaintzen dituzten estatuko eta nazioarteko unibertsitateak.

—Neurrizko kalitatezko lan baldintzak zenbait jakintza adarretan.

— Graduondoko eskaintza euskal gizartearen eskakizunekin zuzenago lotzeko premia.

**Aukerak**

— Latinoamerikako Doktorego- Sarea zabaltzea eta finkatzea.

— Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa bultzatzea.

— Prestakuntza on-line jasotzeko plataforma berriak garatzea.

— Erasmus Mundus masterren eta ingelesez ematen diren masterren eskaintza finkatuta nazioarteko ikasleak erakartzea.

— Graduondoko eskaintza euskararekin eta euskal kulturarekin lotzea.

— Bizitza osoko prestakuntzaren beharrizana egotea.

— UPV/EHU gizartean erreferentziazko erakundea izatea.

## 3.3. Gaur egungo diagnosiaren laburpen taula

| Ahuleziak | Indarguneak |
|---|---|
| — Hobetu daitekeen graduondoko ikasketen estrategia<br>— Master eta doktoregoen eskaintza handitu aurreko koordinazio eta hausnarketa nahikorik ez<br>— Ikasle kopuru txikia master kopuru handi batean (15 ikasle baino gutxiago masterren %20an)<br>— Hautazko kreditu asko ikasle gutxiko masterretan<br>— Graduondoko ikasleen ehunekoa (%10) graduko ikasleena baino txikiagoa<br>— Nazioarteko ikasle gutxi, Latinoamerikatik datozenak kenduta<br>— Gainezarpenak masterretan (nahitaezko irakasgaiak eta ikerketa lerroak) eta doktorego programetan (ikerketa lerroak)<br>— Eskaintza urria on-line egiteko masterretan<br>— Euskararen presentzia urria graduondoko formakuntzan<br>— Eskaintza espezializatuegia zenbait espezializazio arlotako doktorego programetan<br>— Eskaintza urria eta ikasle gutxi UPV/EHUko berezko tituluetan, Gizarte eta Lege Zientzien arloan izan ezik | — Lanbiderako ahalmena ematen duten masterren eskaintza zabalagoa eta matrikulatutako ikasleen kopuru handia<br>— Master eta Doktorego Eskolaren sorrera eta garapena<br>— Latinoamerikako ikasle kopuru handia<br>— Bi Erasmus Mundus masterretan parte hartzea eta horietako bat koordinatzen duen unibertsitatea izatea<br>— Masterren %10 osorik ingelesez ematea eta nazioarteko unibertsitate arteko 6 master ematea<br>— Master eskaintza zabala jakintza adar guztietan<br>— Neurri handi batean Horizon 2020 programarekin bat datozen masterrak eta doktorego programak<br>— Bikaintasun aipamena duten 32 doktorego programa eta ANECAren aldeko txostena duten beste 7<br>— Urteko tesi kopuru handia zenbait espezializazio arlotan<br>— Nazioarteko tesien kopurua nabarmen eta etengabe handitzea<br>— Tutorekidetzan egindako tesien kopurua handitzea<br>— Graduondoko prestakuntza jaso duten ikasleen lan jarduerari buruzko adierazleen eboluzio positiboa |
| **Mehatxuak** | **Aukerak** |
| — Eusko Jaurlaritza: finantziazio publiko egonkorra murriztea krisi ekonomikoaren ondorioz<br>— Nazioartean izen handia duten beste unibertsitate batzuen lehia:<br>• Graduondoko ikasleen ehunekoa handia izatea<br>• Nazioarteko ikasle asko erakartzea<br>— Inguruko unibertsitateen lehia:<br>• Berezko tituluen eskaintza zabala<br>— Graduondokoak on-line eskaintzen dituzten estatuko eta nazioarteko unibertsitateak<br>— Neurrizko kalitatezko lan baldintzak zenbait jakintza adarretan<br>— Graduondoko eskaintza euskal gizartearen eskakizunekin zuzenago lotzeko premia | — Latinoamerikako Doktorego-Sarea zabaltzea eta finkatzea<br>— Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa bultzatzea<br>— On-line prestakuntza eskaintzeko plataforma berriak garatzea<br>— Erasmus Mundus masterren eta ingelesez ematen diren masterren eskaintza finkatuaren ondorioz nazioarteko ikasleak erakartzea<br>— Graduondoko eskaintza euskararekin eta euskal kulturarekin lotzea<br>— Bizitza osoko prestakuntzaren beharrizana egotea<br>— UPV/EHU gizartean erreferentziazko erakundea izatea |

# 4

# Misioa eta ikuspegia

UPV/EHU, 2012-2017 aldirako Plan Estrategikoan jasotzen den moduan,

—unibertsitate publikoa da, eta, horrez gain:

- ikertzailea,
- euskal gizartean sustraitutakoa,
- mundura irekia,
- lidergo intelektuala eta konpromiso etiko eta soziala dituena.

Bestalde, UPV/EHU erreferente bilakatu da Euskal Herrian bai ezagutza berriaren bai ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa prozesuari heltzeko beharrezkoak diren gaitasunen sorreran.

Gainera, UPV/EHUk nazioarteko ikurra izan nahi du irakaskuntzan, ikerketan, jakintzaren transferentzian eta gizarte erantzukizuneko irizpideen araberako jokabidean.

Hortaz, hau da UPV/EHUren **misioa** graduondoko ikasketen esparruan:

—Eskaintzen duen graduondoko prestakuntzak honako ezaugarri hauek izatea:

- osoa, malgua eta euskal gizartearen premiei egokitua izan dadila,
- sormena, ekimena, enplegagarritasuna eta konpromiso etikoa eta soziala bultza ditzala,
- kalitatezko ikerketa bultza dezala,
- eta nazioarte mailan erakargarria izan dadila.

Bestalde, UPV/EHUren **ikuspegia** graduondoko ikasketen esparruan honako hau da:

—Graduondoko irakats eskaintzan bikaintasuna eskuratzea ondokoak lortzeko:

- euskal gizartearen garapen ekonomikoari eta ongizateari lagunduko dien ezagutza sortzea,
- inguruko goi mailako hezkuntzaren erreferente izaten jarraitzea,
- graduondoko ikasketen esparruan nazioarteko erreferente bilakatzea,
- irizpidedun pertsonak, sortzaileak, ekintzaileak eta gizartearekin konprometitutakoak prestatzea.

# 5

# Ardatz estrategikoak

UPV/EHUren graduondoko ikasketen gaur egungo egoeraren diagnosia behin eginda, eta misioa zein ikuspegia definituta, graduondoko ikasketen esparruko ardatz estrategikoak aurkeztuko dira jarraian.

—I. ardatz estrategikoa. Ikerketa-Prestakuntza.

—II. ardatz estrategikoa. Lurraldearekiko lotura.

—III. ardatz estrategikoa. Nazioartekotzea.

Ardatz estrategikoak dira UPV/EHUko graduondoko ikasketek hartu beharreko norabidea ezarriko duten jarduera eremuak, datozen urteotan unibertsitateak bere misioa gara dezan.

Ardatz estrategikoak garatzearekin batera, UPV/EHUko graduondoko ikasketek jasangarritasun baldintza batzuk bete beharko dituzte, UPV/EHUko gobernu organoek zehaztu eta onartuko dituztenak. Besteak beste, honako hauek:

—Master ofizialak eman ahal izateko gutxieneko ikasle kopurua ezartzea.

—Master ofizialetako hautazko kredituen eskaintza mugatzea matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera.

—Gainezarpenik ez egotea master ofizialetako nahitaezko irakasgaietan eta ikerketa lerroetan, ezta doktorego programetako ikerketa lerroetan ere.

## I. ARDATZ ESTRATEGIKOA. IKERKETA-PRESTAKUNTZA

### Helburua

**Kalitatezko** graduondoko prestakuntza eskaintzea eta **jakintzaren arlo guztietan** ezagutza transmititzea, **ikerketa eta gizartearekiko konpromisoa** sustatzeko.

### Ildo estrategikoak

—IE1. Graduondoko eskaintza jasangarria eta kalitatezkoa izatea.

—IE2. Graduondoko eskaintza bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesez izatea.

—IE3. UPV/EHUn defendatutako doktorego tesien kopurua handitzea eta horien kalitatea hobetzea.

### Ildo estrategiko bakoitzeko ekintzak

—IE1. Graduondoko eskaintza jasangarria eta kalitatezkoa izatea:

- Masterren eskaintza gero eta eskaera handiagoa duten eta interesik handiena sortzen duten arloetara bideratzea, egun dauden masterrak aldatuta edo berriak sortuta.
- Masterrak batera daitezela sustatzea, bereziki nahitaezko irakasgaietan edo ikerketa lerroetan gainezarpenak dituztenetan edo, ikasle kopurua kontuan hartuta, eskaintza zabalegia duten arloetan.
- Kualifikazio handia duten irakasleek master eta doktorego programetan parte har dezatela sustatzea.
- Master ofizialek kalitate aipamenen deialdietan parte har dezatela sustatzea, halakorik egonez gero.
- Doktorego programek bikaintasun(eranzko) aipamenen deialdietan parte har dezatela sustatzea.

—IE2. Graduondoko eskaintza bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesez izatea:

- Master ofizialetan euskarazko irakasgaiak eman daitezela bultzatzea.
- Master amaierako lanak euskaraz eta ingelesez egin daitezela sustatzea.
- Doktorego tesiak euskaraz eta ingelesez egin daitezela bultzatzea.

  Ingelesezko irakasgaiak eman daitezela bultzatzea, masterrean hizkuntza gaitasuna duten irakasleak sar daitezela sutatuta.

—IE3. UPV/EHUn defendatutako doktorego tesien kopurua handitzea eta horien kalitatea hobetzea:

- Doktorego tesietako zuzendariei zuzendutako prestakuntza jarduerak garatzea, doktoregaien zuzendari eta tutore lanak egitearekin lotutakoak.
- Doktoregaiei zuzendutako zeharkako prestakuntza moduluak sustatzea ikerketa metodologiaren arloan.

- Doktoregaiek egindako ikerketaren emaitzak zabal daitezela sustatzea espezializazio arlo bakoitzean, Ikerketa Ebaluatzeko Espainiako Batzordeak (CNEAI) ezarritako irizpideen arabera.
- Doktoregaiak UPV/EHUko ikerketa egituretan sar daitezela sustatzea.
- UPV/EHUko ikertzaile hasiberriak apurka-apurka doktorego programetan sartuz joatea eta UPV/EHUn eskarmentua daukaten ikertzaileekin batera doktorego tesiak zuzen ditzatela sustatzea.
- Kalitate egiaztatua duten UPV/EHUz kanpoko ikertzaileak doktorego tesietan zuzendarikide izan daitezela sustatzea.

## II. ARDATZ ESTRATEGIKOA. LURRALDEAREKIKO LOTURA

### Helburuak

- **Ekoizpen sarearen, gizarte erakundeen eta, oro har, euskal gizartearen prestakuntza** premiei erantzutea.
- Jakintzaren **transferentzia, ekimena, enplegagarritasuna eta konpromiso etikoa eta soziala** hobetzea.

### Ildo estrategikoak

- IE4. Sormenaren, ekimenaren eta berrikuntzaren kultura sustatzea graduondoko prestakuntzan.
- IE5. Enplegagarritasuna eta laneratzea hobetuko dituzten gaitasunak eskuratzea erraztea, Euskal Herriko hainbat erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresekin batera.
- IE6. Elkarrizketa eta partaidetza bultzatuko dituen eta ekoizpen sarearen, gizarte erakundeen eta, oro har, euskal gizartearen premiei erantzungo dien graduondoko prestakuntza garatzea.
- IE7. Euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako graduondoko eskaintza sustatzea.
- IE8. Bizitza osoko prestakuntza eta ikaskuntza aktiboa, eskuragarria eta malgua sustatuko dituen eta campus birtualaren bidez zein informazio eta komunikazio teknologien bidez urrutiko ikaskuntza erraztuko duen graduondoko eskaintza bultzatzea.

### Ildo estrategiko bakoitzeko ekintzak

- IE4. Sormenaren, ekimenaren eta berrikuntzaren kultura sustatzea graduondoko prestakuntzan:
  - Master eta Doktorego Eskolarekin batera sormena eta jarrera berritzailea sustatuko dituen prestakuntza bultzatzea ekimenari dagokionez, jakintza arlo bakoitzaren berezitasunekin bat.
  - Graduondoko ikasleen artean UPV/EHUko ekimen plataformek antolatutako jarduerei buruzko informazioa zabaltzea (sentsibilizazioa, jardunaldiak, foroak, sariak, etab.) eta ikasleek jarduera horietan parte har dezatela sustatzea.
  - Enpresak, gizarte erakundeak eta spin-off delakoak sortzera bideratutako programak sustatzea eta horiek jakintza arloen berezitasunetara eta graduondoko ikasleen eta, oro har, euskal gizartearen premietara egokitzea.

    Zeharkako prestakuntzako bestelako jarduerak bultzatzea Master eta Doktorego Eskolarekin batera.
  - UPV/EHUren Dok-Barnetegiak programa finkatzea eta antzeko programen antolaketa sustatzea.

—IE5. Enplegagarritasuna eta laneratzea hobetuko dituzten gaitasunak eskuratzea erraztea, Euskal Herriko hainbat erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresekin batera:

- Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresetan doktorego tesiak egin daitezela bultzatzera bideratutako Zabalduz elkarlaneko doktorego programa sustatzea, baita elkarlanean aritzeko antzerako deialdiak ere.
- Elkarlanean aritzeko akordioak, hitzarmenak eta deialdiak bultzatzea, inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresetan master amaierako lanak eta praktikak egiteko.

  Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresetan egindako praktika profesional kualifikatuetan oinarritutako laneratze programak sustatzea, graduondoko ikasleek lan munduarekin lehen aldiz harremanetan jartzeko aukera izan dezaten.
- Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresekiko lankidetza sustatzea, itunak sortzeko eta kanpoko profesionalek graduondoko ikasketetako prestakuntza jardueretan parte har dezatela sustatzeko.
- Lana eta jarduera akademikoa txandakatuko dituen prestakuntza (bitariko prestakuntza) oinarritzat izango duen graduondoko eskaintza garatzea, gure ikasleen prestakuntza praktikoa eta enplegagarritasuna hobetzeari begira.

—IE6. Elkarrizketa eta partaidetza bultzatuko dituen eta ekoizpen sarearen, gizarte erakundeen eta, oro har, euskal gizartearen premiei erantzungo dien graduondoko prestakuntza garatzea:

- Graduondoko eskaintzarekin lotutako informazioa eta komunikazioa hobetzeko bideak sortzea eta bultzatzea, arreta berezia jarrita arlo horretako informazioa (prestakuntza katalogoa, jarduerak, programa osagarriak eta gestio prozesuak) integratu eta errazago ikusi eta kontsultatzeko moduan jarriko dituen web plataforma bat diseinatzeari, beti ere Berdintasunerako Zuzendaritzaren gomendioak jarraituz.
- Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresei zuzendutako jardunaldi eta topaguneen antolaketa bultzatzea, UPV/EHUko masterren eta doktorego programen eskaintza eta unibertsitateko ikerketa egiturak ezagutzera emateko, baita harremanak, akordioak, hitzarmenak eta abar gauzatzeko ere.
- Egungo graduondoko eskaintzak asetzen ez duen prestakuntza emateko eskariak biltzeko mekanismoen sorrera bultzatzea, jakintza eremu guztietarako.
- UPV/EHUko graduondoko programekin elkarlanean diharduten gizarte eragile eta entitateei egindako lana aitortzeko formulak bilatzea.

—IE7. Euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako graduondoko eskaintza sustatzea:

- Euskara edo euskal kulturaren alderdiak ikertzea helburu nagusitzat duten master ofizialak indartzea.
- Euskal kulturarekin lotutako etengabeko prestakuntzako eskaintza (berezko tituluak, ikastaro osagarriak...) deialdi espezifikoen bidez indartzea.

— IE8. Bizitza osoko prestakuntza eta ikaskuntza aktiboa, eskuragarria eta malgua sustatuko dituen eta informazio eta komunikazio teknologien bidez urrutiko ikaskuntza erraztuko duen graduondoko eskaintza bultzatzea:

- UPV/EHUko etengabeko prestakuntzako eskaintza integratu, indartu eta ikusgarriago egingo duen gestio eredu berri bat prestatzea.
- Urrutiko prestakuntzako plataformak sustatzea.
- Master ofizialetan urrutiko kredituen eskaintza sustatzea.
- Graduondoko eskaintza egokitzea urrutiko prestakuntza birtuala kalitatezkoa, eskuragarria eta norberari egokitua izateko eskaerari.
- Ingurune sozioekonomiko eta kulturalaren premiei erantzungo dien etengabeko prestakuntzako eskaintza bultzatzea (berezko tituluak, ikastaro osagarriak...).

## III. ARDATZ ESTRATEGIKOA. NAZIOARTEKOTZEA

### Helburuak

**Nazioarte mailan erakargarria** izango den graduondoko prestakuntza eskaintzea, bikaintasunezko ikertzaileak **erakarri eta prestatzeko** balioko duena.

### Ildo estrategikoak

- —IE9. Nazioarteko goi mailako hezkuntzako erakundeekin itunak eta lankidetza finkatzea, mugikortasuna, titulazio bikoitzak, nazioarteko sareetako partaidetza eta nazioarteko tesiak eta tutorekidetzan egindako tesiak sustatzeko.
- —IE10. UPV/EHUk Latinoamerikan duen presentzia finkatzea, unibertsitateekin eta goi mailako hezkuntzako erakundeekin elkarlanean. Zehazki, Latinoamerikako Master eta Doktorego Sarea finkatu eta handitzea.
- —IE11. Graduondoko prestakuntza nazioarteko beste eremu geografiko batzuetara zabal dadila sustatzea, Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusaren esparruan.
- —IE12. Nazioarteko ikasleak erakartzeko bideak sustatzea.
- —IE13. Prestakuntza bidean dauden nazioarteko ikertzaile talentudunak erakartzeko eta haien leialtasuna lortzeko politika bat bultzatzea.
- —IE14. Graduondokoetan atzerriko hizkuntzen ezagutza maila eta erabilera handitzea sustatzea.
- —IE15. Masterren eta doktorego programen nazioartekotze premietara egokitzea egiturak, zerbitzuak eta prozedurak.

### Ildo estrategiko bakoitzeko ekintzak

- —IE9. Nazioarteko goi mailako hezkuntzako erakundeekin itunak eta lankidetza finkatzea, mugikortasuna, titulazio bikoitzak, nazioarteko sareetako partaidetza eta nazioarteko tesiak eta tutorekidetzan egindako tesiak sustatzeko.
  - Hitzarmenak (mugikortasuna, partzuergoak, Erasmus Mundus masterrak, titulazio bikoitzak, elkarlanean sortutako doktorego programak, sareetan sartzea) bultzatzea eta/edo finkatzea, batez ere, lehentasunezkotzat jotzen diren eremu geografikoetan, eta indarrean dauden hitzarmenen eraginkortasuna aldian behin ebaluatzea.
  - Deialdi espezifikoen bitartez graduondoko irakasleen mugikortasuna indartzea, hitzarmen eta itun berriak sustatzeko.
  - Deialdi espezifikoen bitartez graduondoko ikasleen mugikortasuna sustatzea.
  - Nazioarteko tesiak eta atzerriko unibertsitateekin tutorekidetzan egindako tesiak sustatzea.

—IE10. UPV/EHUk Latinoamerikan duen presentzia finkatzea, unibertsitateekin eta goi mailako hezkuntzako erakundeekin elkarlanean. Zehazki, Latinoamerikako Master eta Doktorego Sarea finkatu eta handitzea:

- Latinoamerikako Master eta Doktorego Sarea finkatu eta handitzeko itun berriak egitea dagoeneko itunak dituzten adarretan, baita Zientzia Esperimentalen eta Arkitektura eta Ingeniaritzaren adarretan ere.
- Sare horretako doktoregaiak talde lehiakorretan sar daitezela sustatzea, sareko unibertsitateetako eta UPV/EHUko ikertaldeen artean harremanak sortzeko.
- Gobernuekin harremanak ezartzea (tokiko gobernuak, hala badagokio) graduondoko prestakuntzarako interesekoak izan daitezkeen arloak zehazteko eta gobernu horiekin hitzarmenak izenpetzea, UPV/EHUn graduondoko prestakuntza jaso nahi duten Latinoamerikako ikasleei bekak eman diezazkieten.

—IE11. Graduondoko prestakuntza nazioarteko beste eremu geografiko batzuetara zabaltzea bultzatzea, Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusaren esparruan:

- Titulazio bikoitzeko master ofizialen eskaintza eta nazioarteko tesiak eta tutorekidetzan egindakoak sustatzea inguruko unibertsitateekin elkarlanean (batez ere Bordeleko Unibertsitatearekin eta Pabeko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin).
- Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campuseko unibertsitateekin elkarlanean aritzea hirugarren herrialde batzuekin partekatutako itunak ezartzeko mugikortasunerako, tutorekidetzan egindako tesietarako eta titulazio bikoitzetarako.
- Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa graduondoko ikasleak erakartzeko elementu zehatzez hornitzea (deialdiak, bekak...).

—IE12. Nazioarteko ikasleak erakartzeko bideak sustatzea:

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroen eskaintza berrantolatzea, graduondoko ikasleen ohiko ordutegiarekin bateragarriak izan daitezen.
- Euskal kulturarekin lotutako nazioarteko erakunde eta unibertsitateekin itunak finkatzea nazioarteko masterrak eta titulazio bikoitzekoak, eta, bereziki, tutorekidetzan egindako tesiak sustatzeko, baita unibertsitatearen graduondoko eskaintza zabaltzeko ere.
- Tokiko erakundeekin akordioak izenpetzea beren nazioartekotze ekintzak graduondoko programen zabalkundearekin lotzeko.
- Ingelesezko graduondoko eskaintza, nazioarteko eta unibertsitate arteko master eta doktoregoak eta titulazio bikoitzekoak, eta Erasmus Mundus masterrak bultzatzea, eta eskaintza horri nazioarteko foroetan zabalkundea ematea.

—IE13. Prestakuntza bidean dauden nazioarteko ikertzaile talentudunak erakartzeko eta haien leialtasuna lortzeko politika bat bultzatzea:

- Prestakuntza bidean dauden atzerriko ikertzaileak UPV/EHUko taldeetan integra daitezela bultzatzea eta erraztea, eta talde horietan doktorego tesiak egin ditzatela sustatzea.

- Laguntzen programa propio bat sortzea, UPV/EHUra datozen ikasleen artean «espediente akademiko bikaina» dutenak gero eta gehiago izan daitezen.
- Graduondoko nazioarteko ikasleak erakartzeko eta haien leialtasuna lortzeko sare bat sortzea (ikasle ohiak, «alumni visitante»).

—IE14. Graduondokoetan atzerriko hizkuntzen ezagutza maila eta erabilera handitzea sustatzea:

- Unibertsitateko kideei zuzendutako kontzientziazio kanpaina bat egitea B2-C1 hizkuntza agiria eskuratzeko beharrari buruz, eta unibertsitateko ikasleei hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko probak egiteko aukera ematea.
- Jarduera akademikoak ingelesez antola daitezela eta horien zabalkundea egin dadila sustatzea Master eta Doktorego Eskolarekin batera, besteak beste.
- Unibertsitateko ikasleei eta langileei atzerriko hizkuntzetako prestakuntza ikastaroak egiteko aukera ematea, erakunde espezializatuekin hitzarmenak izenpetuta eta campusetako hizkuntza laborategien berri emanda.

—IE15. Masterren eta doktorego programen nazioartekotze premietara egiturak, zerbitzuak eta prozedurak egokitzea:

- Graduondoko informazio akademikoa eta erakunde informazioa ingelesez ere ematea (webgunea, formularioak, etab.).
- Nazioartekotze prozesuei lotutako AZPko langileen lanpostu berrietan ingeleseko hizkuntza gaitasuna eskatzea.
- Ikasle eta ikertzaile bisitariak hartzeko zerbitzua hobetzea (International Scholars Office).
- Master eta doktorego programetan laguntza, prestakuntza eta orientazioa ematea, unibertsitate arteko lankidetzako Europako deialdietan (Erasmus Mundus, ITN...) parte hartzea handitzeko eta hitzarmenak izapidetzeko.

# 6

## Eranskina.
## Taula: Ildo estrategikoak/ Ekintzak / Adierazleak

## I. ardatz estrategikoa. Ikerketa-Prestakuntza

| Ildo estrategikoak | Ekintzak | Adierazleak |
|---|---|---|
| **IE1.** Graduondoko eskaintza jasangarria eta kalitatezkoa izatea | Masterren eskaintza gero eta eskaera handiagoa duten eta interesik handiena sortzen duten arloetara bideratzea, egun dauden masterrak aldatuta edo berriak sortuta | Gero eta eskaera handiagoa duten eta interesik handiena sortzen duten arloetara bideratutako master ofizialen, bai berrien edo baita egun dauden masterren eraldakuntzatik eratorritakoen, kopurua |
| | Masterrak batera daitezela sustatzea, bereziki nahitaezko irakasgaietan edo ikerketa lerroetan gainezarpenak dituztenetan edo, ikasle kopurua kontuan hartuta, eskaintza zabalegia duten arloetan | Gainjarrita zeuden bi titulu edo gehiago batzetik sortutako masterren kopurua, bai eta eskaintza zabalegia duten arloetan batu direnen kopurua ere |
| | Kualifikazio handia duten irakasleek master eta doktorego programetan parte har dezatela sustatzea | Bi seiurteko edo pareko merezimenduak dituzten irakasleek emandako kredituen ehunekoa |
| | | Bi seiurteko edo pareko merezimenduak dituzten doktorego programetako irakasleen ehunekoa |
| | Master ofizialek kalitate aipamenen deialdietan parte har dezatela sustatzea, halakorik egonez gero | Kalitate aipamena duten masterren kopurua |
| | | Kalitate aipamena duten masterren ehunekoa |
| | Doktorego programek bikaintasun(eranzko) aipamenen deialdietan parte har dezatela sustatzea | Bikaintasun(eranzko) aipamena duten doktorego programen kopurua |
| | | Bikaintasun(eranzko) aipamena duten doktorego programen ehunekoa |
| **IE2.** Graduondoko eskaintza bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesez izatea | Master ofizialetan euskarazko irakasgaiak eman daitezela bultzatzea | Master ofizialetan euskaraz emandako kredituen ehunekoa (Master Amaierako Lanekoak eta Practicum-ekoak kenduta) |
| | Master amaierako lanak euskaraz eta ingelesez egin daitezela sustatzea | Ikasturte bakoitzean euskaraz egindako Master Amaierako Lanen kopurua |
| | | Ikasturte bakoitzean ingelesez egindako Master Amaierako Lanen kopurua |
| | Doktorego tesiak euskaraz eta ingelesez egin daitezela bultzatzea | Ikasturte bakoitzean euskaraz egindako doktorego tesien kopurua |
| | | Ikasturte bakoitzean ingelesez egindako doktorego tesien kopurua |
| | Ingelesezko irakasgaiak eman daitezela bultzatzea, masterrean hizkuntza gaitasuna duten irakasleak sar daitezela sustatuta | Master ofizialetan ingelesez emandako kredituen ehunekoa (Master Amaierako Lanekoak eta Practicum-ekoak kenduta) |
| | | Eskolak ingelesez emateko gaitasun egiaztatua duten irakasleek hizkuntza horretan emandako kredituen ehunekoa |

| Ildo estrategikoak | Ekintzak | Adierazleak |
|---|---|---|
| **IE3.** UPV/EHUn defendatutako doktorego tesien kopurua handitzea eta horien kalitatea hobetzea | Doktorego tesietako zuzendariei zuzendutako prestakuntza jarduerak garatzea, doktoregaien zuzendari eta tutore lanak egitearekin lotutakoak | Doktoregaien zuzendari eta tutore lanak egitearekin lotutako prestakuntza jardueren kopurua |
| | | Prestakuntza jardueretan parte hartu dutenen kopurua |
| | Doktoregaiei zuzendutako zeharkako prestakuntza moduluak sustatzea ikerketa metodologiaren arloan | Doktoregaiei zuzendutako modulu kopurua |
| | | Moduluetan parte hartu dutenen kopurua |
| | Doktoregaiek egindako ikerketaren emaitzak zabal daitezela sustatzea espezializazio arlo bakoitzean, Ikerketa Ebaluatzeko Espainiako Batzordeak (CNEAI) ezarritako irizpideen arabera | Doktoregaiek, haien tesiekin lotuta, CNEAIk haien espezializazio arloan ezarritako irizpideen arabera egindako ekoizpenen kopurua |
| | Doktoregaiak UPV/EHUko ikerketa egituretan sar daitezela sustatzea | UPV/EHUko ikerketa egituretan defendatutako tesien kopurua |
| | UPV/EHUko ikertzaile hasiberriak apurka-apurka doktorego programetan sartuz joatea eta UPV/EHUn eskarmentua daukaten ikertzaileekin batera doktorego tesiak zuzen ditzatela sustatzea | UPV/EHUn eskarmentua daukaten ikertzaileekin batera doktorego tesiak zuzendu dituzten ikertzaile hasiberrien kopurua |
| | Kalitate egiaztatua duten UPV/EHUz kanpoko ikertzaileak doktorego tesietan zuzendarikide izan daitezela sustatzea | Doktorego tesien zuzendarikide izan diren UPV/EHUz kanpoko ikertzaileak |

## II. ardatz estrategikoa. Lurraldearekiko lotura

| Ildo estrategikoak | Ekintzak | Adierazleak |
|---|---|---|
| **IE4.** Sormenaren, ekimenaren eta berrikuntzaren kultura sustatzea graduondoko prestakuntzan | Master eta Doktorego Eskolarekin batera sormena eta jarrera berritzailea sustatuko dituen prestakuntza bultzatzea ekimenari dagokionez, jakintza arlo bakoitzaren berezitasunekin bat | Ekimenaren arloko prestakuntza jardueren kopurua |
| | Graduondoko ikasleen artean UPV/EHUko ekimen plataformek antolatutako jarduerei buruzko informazioa zabaltzea (sentsibilizazioa, jardunaldiak, foroak, sariak, etab.) | Jardueretan parte hartzen duten ikasleen kopurua |
| | Enpresak, gizarte erakundeak eta spin-off delakoak sortzera bideratutako programak sustatzea eta horiek jakintza arloen berezitasunetara eta graduondoko ikasleen eta, oro har, euskal gizartearen premietara egokitzea | Enpresa, gizarte erakunde eta spin-off enpresak sortzera bideratutako programen kopurua |
| | Zeharkako prestakuntzako bestelako jarduerak bultzatzea Master eta Doktorego Eskolarekin batera | Zeharkako prestakuntzako bestelako jardueren kopurua |
| | UPV/EHUren Dok-Barnetegiak programa finkatzea eta antzeko programen antolaketa sustatzea | UPV/EHUren Dok Barnetegiak programan eta antzekoetan parte hartzen duten doktoregaien kopurua |
| **IE5.** Enplegagarritasuna eta laneratzea hobetuko dituzten gaitasunak eskuratzea erraztea, Euskal Herriko hainbat erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresekin batera | Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresetan doktorego tesiak egin daitezela bultzatzera bideratutako Zabalduz elkarlaneko doktorego programa sustatzea, baita elkarlanean aritzeko antzerako deialdiak ere | Zabalduz elkarlaneko doktorego programan edo antzeko programetan parte hartzen ari diren doktoregaien kopurua |
| | Elkarlanean aritzeko akordioak, hitzarmenak eta deialdiak bultzatzea, inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresetan Master Amaierako Lanak eta praktikak egiteko | Master Amaierako Lanak inguruko erakundeetan egiteko indarrean dauden hitzarmenen kopurua |
| | | Inguruko erakundeetan praktikak egiteko indarrean dauden hitzarmenen kopurua |
| | Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresetan egindako praktika profesional kualifikatuetan oinarritutako laneratze programak sustatzea, graduondoko ikasleek lan munduarekin lehen aldiz harremanetan jartzeko aukera izan dezaten | Graduondoko ikasleen laneratze maila, jakintza adarraren arabera |
| | Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresekiko lankidetza sustatzea, itunak sortzeko eta kanpoko profesionalek graduondoko ikasketetako prestakuntza jardueretan parte har dezatela sustatzeko | Graduondoko ikasketetako prestakuntza jardueretan parte hartzen duten kanpoko profesionalen kopurua |
| | Lana eta jarduera akademikoa txandakatuko dituen prestakuntza (bitariko prestakuntza) oinarritzat izango duen graduondoko eskaintza garatzea, gure ikasleen prestakuntza praktikoa eta enplegagarritasuna hobetzeari begira | Txandakako prestakuntza eskaintzen duten graduondokoen kopurua |

| Ildo estrategikoak | Ekintzak | Adierazleak |
|---|---|---|
| **IE6.** Elkarrizketa eta partaidetza bultzatuko dituen eta ekoizpen sarearen, gizarte erakundeen eta, oro har, euskal gizartearen premiei erantzungo dien graduondoko prestakuntza garatzea | Graduondoko eskaintzarekin lotutako informazioa eta komunikazioa hobetzeko bideak sortzea eta bultzatzea, arreta berezia jarrita arlo horretako informazioa (prestakuntza katalogoa, jarduerak, programa osagarriak eta gestio prozesuak) integratu eta errazago ikusi eta kontsultatzeko moduan jarriko dituen web plataforma bat diseinatzeari, beti ere Berdintasunerako Zuzendaritzaren gomendioak jarraituz | Prestakuntza katalogoa, jarduera eta programa osagarriak eta arlo horretako gestio prozesuei buruzko informazioa integratu eta errazago ikusi eta kontsultatzeko moduan jarriko dituen web plataforma |
| | Inguruko erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresei zuzendutako jardunaldi eta topaguneen antolaketa bultzatzea, UPV/EHUko masterren eta doktorego programen eskaintza eta unibertsitateko ikerketa egiturak ezagutzera emateko, baita harremanak, akordioak, hitzarmenak eta abar gauzatzeko ere | Antolatutako jardunaldi eta topaguneen kopurua |
| | Egungo graduondoko eskaintzak asetzen ez duen prestakuntza emateko eskariak biltzeko mekanismoen sorrera bultzatzea, jakintza eremu guztietarako | Egungo graduondoko eskaintzak asetzen ez duen prestakuntza emateko eskariak biltzeko mekanismoen garapena |
| | UPV/EHUko graduondoko programekin elkarlanean dihardutne gizarte eragile eta entitateei egindako lana aitortzeko formulak bilatzea | Egindako lana aitortzeko antolatu diren ekitaldi publikoen kopurua |
| **IE7.** Euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako graduondoko eskaintza sustatzea | Euskara edo euskal kulturaren alderdiak ikertzea helburu nagusitzat duten master ofizialak indartzea | Euskararekin eta/edo euskal kulturarekin lotutako master ofizialen kopurua |
| | Euskal kulturarekin lotutako etengabeko prestakuntzako eskaintza (berezko tituluak, ikastaro osagarriak…) deialdi espezifikoen bidez indartzea | Euskal kulturarekin lotutako berezko titulu eta ikastaro osagarrien kopurua |
| **IE8.** Bizitza osoko prestakuntza eta ikaskuntza aktiboa, eskuragarria eta malgua sustatuko dituen eta informazio eta komunikazio teknologien bidez urrutiko ikaskuntza erraztuko duen graduondoko eskaintza bultzatzea | UPV/EHUko etengabeko prestakuntzako eskaintza integratu, indartu eta ikusgarriago egingo duen gestio eredu berri bat prestatzea | Gestio eredu berri baten garapena |
| | Urrutiko prestakuntzako plataformak sustatzea | Urrutiko graduondokoen ehunekoa |
| | Master ofizialetan urrutiko kredituen eskaintza sustatzea | Master ofizialetan eskainitako urrutiko kredituen ehunekoa |
| | Graduondoko eskaintza egokitzea urrutiko prestakuntza birtuala kalitatezkoa, eskuragarria eta norberari egokitua izateko eskaerari | Urrutiko prestakuntza gisa berezko titulu eta ikastaro osagarrietan eskainitako kredituen ehunekoa |
| | Ingurune sozioekonomiko eta kulturalaren premiei erantzungo dien etengabeko prestakuntzako eskaintza bultzatzea (berezko tituluak, ikastaro osagarriak…) | Ingurune sozioekonomiko eta kulturalaren premia eta eskariei erantzuna ematen dieten etengabeko prestakuntzako ikastaroen kopurua |

## III. ardatz estrategikoa. Nazioartekotzea

| Ildo estrategikoak | Ekintzak | Adierazleak |
|---|---|---|
| **IE9.** Nazioarteko goi mailako hezkuntzako erakundeekin itunak eta lankidetza finkatzea, mugikortasuna, titulazio bikoitzak, nazioarteko sareetako partaidetza eta nazioarteko tesiak eta tutorekidetzan egindako tesiak sustatzeko | Hitzarmenak (mugikortasuna, partzuergoak, Erasmus Mundus masterrak, titulazio bikoitzak, elkarlanean sortutako doktorego programak, sareetan sartzea) bultzatzea eta/edo finkatzea, batez ere, lehentasunezkotzat jotzen diren eremu geografikoetan, eta indarrean dauden hitzarmenen eragin-kortasuna aldian behin ebaluatzea | Graduondoko mugikortasun hitzarmenen kopurua |
| | | Erasmus Mundus mugikortasunerako partzuergoen kopurua |
| | | Erasmus Mundus masterretarako partzuergoen kopurua |
| | | Titulazio bikoitzak egiteko hitzarmenen kopurua |
| | | Baterako doktorego programak eskaintzeko hitzarmenen kopurua |
| | | Graduondoko sareen kopurua |
| | Deialdi espezifikoen bitartez graduondoko irakasleen mugikortasuna indartzea, hitzarmen eta itun berriak sustatzeko | Mugikortasun deialdietan parte hartu duten graduondoko irakasleen kopurua |
| | Deialdi espezifikoen bitartez graduondoko ikasleen mugikortasuna sustatzea | Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleen kopurua |
| | Nazioarteko tesiak eta atzerriko unibertsitateekin tutorekidetzan egindako tesiak sustatzea | Nazioarteko tesien kopurua |
| | | Atzerriko unibertsitateekin tutorekidetzan egindako tesien kopurua |
| **IE10.** UPV/EHUk Latinoamerikan duen presentzia finkatzea, unibertsitateekin eta goi mailako hezkuntzako erakundeekin elkarlanean. Zehazki, Latinoamerikako Master eta Doktorego Sarea finkatu eta handitzea | Latinoamerikako Master eta Doktorego Sarea finkatu eta handitzeko itun berriak egitea dagoeneko itunak dituzten adarretan, baita Zientzia Esperimentalen eta Arkitektura eta Ingeniaritzaren adarretan ere | Sareko master eta doktorego programen kopurua |
| | | Master eta doktorego programa berriak Zientzia Esperimentaletan |
| | | Master eta doktorego programa berriak Arkitektura eta Ingeniaritzan |
| | Sare horretako doktoregaiak talde lehiakorretan sar daitezela sustatzea, sareko unibertsitateetako eta UPV/EHUko ikertaldeen artean harremanak sortzeko | Talde lehiakorretan dauden sareko doktoregaien kopurua |
| | Gobernuekin harremanak ezartzea (tokiko gobernuak, hala badagokio) graduondoko prestakuntzarako interesekoak izan daitezkeen arloak zehazteko eta gobernu horiekin hitzarmenak izenpetzea, UPV/EHUn graduondoko prestakuntza jaso nahi duten Latinoamerikako ikasleei bekak eman diezazkieten | UPV/EHUn graduondoko prestakuntza jaso nahi duten Latinoamerikako ikasleei beren gobernuek emandako beken kopurua |
| **IE11.** Graduondoko prestakuntza nazioarteko beste eremu geografiko batzuetara zabaltzea bultzatzea, Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusaren esparruan | Titulazio bikoitzeko master ofizialen eskaintza eta nazioarteko tesiak eta tutorekidetzan egindakoak sustatzea inguruko unibertsitateekin elkarlanean (batez ere Bordeleko Unibertsitatearekin eta Pabeko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearekin) | Inguruko unibertsitateekin elkarlanean eskaintzen diren titulazio bikoitzeko master ofizialen kopurua |
| | | Inguruko unibertsitateekin elkarlanean egindako nazioarteko tesien kopurua |
| | | Inguruko unibertsitateekin elkarlanean tutorekidetzan egindako tesien kopurua |
| | Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campuseko unibertsitateekin elkarlanean aritzea hirugarren herrialde batzuekin partekatutako itunak ezartzeko mugikortasunerako, tutorekidetzan egindako tesietarako eta titulazio bikoitzetarako | Hirugarren herrialdeetako unibertsitateekin partekatutako itunen kopurua |
| | Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa graduondoko ikasleak erakartzeko elementu zehatzez hornitzea (deialdiak, bekak...) | Graduondoko ikasleak erakartzeko Euroeskualdeko Campusak egindako deialdien kopurua |

<table>
<tr><th>Ildo estrategikoak</th><th>Ekintzak</th><th>Adierazleak</th></tr>
<tr><td rowspan="9">IE12.<br>Nazioarteko ikasleak erakartzeko bideak sustatzea</td><td>Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroen eskaintza berrantolatzea graduondoko ikasleen ohiko ordutegiarekin bateragarriak izan daitezen</td><td>Gaztelania eta euskara ikastaroak egiten dituzten graduondoko ikasle atzerritarren kopurua</td></tr>
<tr><td>Euskal kulturarekin lotutako nazioarteko erakunde eta unibertsitateekin itunak finkatzea nazioarteko masterrak eta titulazio bikoitzekoak, eta, bereziki, tutorekidetzan egindako tesiak sustatzeko, baita unibertsitatearen graduondoko eskaintza zabaltzeko ere</td><td>Euskal kulturarekin lotutako nazioarteko erakunde eta unibertsitateekin egindako itunen kopurua</td></tr>
<tr><td>Tokiko erakundeekin akordioak izenpetzea beren nazioartekotze ekintzak graduondoko programen zabalkundearekin lotzeko</td><td>Tokiko erakundeekin izenpetutako akordioak, beren nazioartekotze ekintzak graduondoko programen zabalkundearekin lotzeko</td></tr>
<tr><td rowspan="6">Ingelesezko graduondoko eskaintza, nazioarteko eta unibertsitate arteko master eta doktoregoak eta titulazio bikoitzekoak, eta Erasmus Mundus masterrak bultzatzea, eta eskaintza horri nazioarteko foroetan zabalkundea ematea</td><td>Ingelesez guztiz ikasi ahal diren masterren kopurua</td></tr>
<tr><td>Ingelesez irakasgai batzuk eskaintzen dituen masterren kopurua</td></tr>
<tr><td>Nazioarteko eta unibertsitate arteko masterren kopurua</td></tr>
<tr><td>Titulazio bikoitzeko masterren kopurua</td></tr>
<tr><td>Erasmus Mundus masterren kopurua</td></tr>
<tr><td>Nazioarteko eta unibertsitate arteko doktoregoen kopurua</td></tr>
<tr><td rowspan="5">IE13.<br>Prestakuntza bidean dauden nazioarteko ikertzaile talentudunak erakartzeko eta haien leialtasuna lortzeko politika bat bultzatzea</td><td rowspan="2">Prestakuntza bidean dauden atzerriko ikertzaileak UPV/EHUko taldeetan integra daitezela bultzatzea eta erraztea, eta talde horietan doktorego tesiak egin ditzatela sustatzea</td><td>Prestakuntza bidean dauden eta UPV/EHUko taldeetan ari diren ikertzaile atzerritarren kopurua</td></tr>
<tr><td>Prestakuntza bidean dauden eta UPV/EHUko taldeetan ari diren ikertzaile atzerritarrek egindako doktorego tesien kopurua</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Laguntzen programa propio bat sortzea, UPV/EHUra datozen ikasle atzerritarren artean «espediente akademiko bikaina» dutenak gero eta gehiago izan daitezen</td><td>Laguntzen programa propio baten diseinua</td></tr>
<tr><td>«Espediente akademiko bikaina»izanik UPV/EHUren laguntzak jasotzen dituzten doktoregoko ikasle atzerritarren kopurua</td></tr>
<tr><td>Graduondoko nazioarteko ikasleak erakartzeko eta haien leialtasuna lortzeko sare bat sortzea (ikasle ohiak, «alumni visitante»)</td><td>Graduondoko nazioarteko ikasleak erakartzeko eta haien leialtasuna lortzeko sarea (ikasle ohiak, «alumni visitante»)</td></tr>
<tr><td rowspan="5">IE14.<br>Graduondokoetan atzerriko hizkuntzen ezagutza maila eta erabilera handitzea sustatzea</td><td rowspan="2">Unibertsitateko kideei zuzendutako kontzientziazio kanpaina bat egitea B2-C1 hizkuntza agiria eskuratzeko beharrari buruz, eta unibertsitateko ikasleei hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko probak egiteko aukera ematea</td><td>Kontzientziazio kanpaina</td></tr>
<tr><td>Ikasleek hizkuntza gaitasuna egiazta ditzaten egindako proben kopurua</td></tr>
<tr><td>Jarduera akademikoak ingelesez antola daitezela eta horien zabalkundea egin dadila sustatzea, besteak beste, Master eta Doktorego Eskolarekin batera</td><td>Ingelesez antolatutako jarduera akademikoen kopurua</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Unibertsitateko ikasleei eta langileei atzerriko hizkuntzetako prestakuntza ikastaroak egiteko aukera ematea, erakunde espezializatuekin hitzarmenak izenpetuta eta campusetako hizkuntza laborategien berri emanda</td><td>Erakunde espezializatuekin izenpetutako hitzarmenen kopurua</td></tr>
<tr><td>Campusetako hizkuntza laborategiak erabiltzen dituzten ikasleen kopurua</td></tr>
</table>

| Ildo estrategikoak | Ekintzak | Adierazleak |
|---|---|---|
| **IE15.** Masterren eta doktorego programen nazioartekotze premietara egiturak, zerbitzuak eta prozedurak egokitzea | Graduondoko eta ikerketako informazio akademikoa eta erakunde informazioa ingelesez ere ematea (webgunea, formularioak, etab.) | Graduondoko informazio orokorrari buruz ingelesez dauden web-orrialdeen ehunekoa |
| | | Titulu bakoitzeko informazio espezifikoari buruz ingelesez dauden web-orrialdeen ehunekoa |
| | Nazioartekotze prozesuei lotutako AZPko langileen lanpostu berrietan ingeleseko hizkuntza gaitasuna eskatzea | Ingeles profila duen AZPkoen ehunekoa |
| | Ikasle eta ikertzaile bisitariak hartzeko zerbitzua hobetzea (International Scholars Office) | Gogobetetze maila harreraren gaineko inkestetan |
| | Master eta doktorego programetan laguntza, prestakuntza eta orientazioa ematea, unibertsitate arteko lankidetzako Europako deialdietan (Erasmus Mundus, ITN...) parte hartzea handitzeko eta hitzarmenak izapidetzeko | Unibertsitate arteko lankidetzako Europako deialdietan (Erasmus Mundus, ITN...) parte hartzen duten masterren eta doktorego programen kopurua |